

# **Funtsezko jarduerak**

Gure enpresaren funtsezko jarduerak, produktuen, ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena, era eraginkor batean ekoiztea da, ekoizpen-prozesuaren dinamika jarraitutasun batekin gauzatu dadin bermatzeko. Bestalde, hauek, ezagutzera eman eta diseinu, fabrikazio eta distribuzioari, irmotasuna ematea da.

Gure enpresaren efektibotasuna bermatzeko garrantzitsua izango da lantokia ondo antolatzea, lehen aipatu dugun ekoizpen-prozesua eraginkorra izan dadin. Beste enprekin egin daitezken hitzarmenak betearaziz modu jasangarri eta efiziente batean.

Zabalkundeari dagokionez, aurreko atalean aipatu dugun bezala, estatuko hiri nagusietako dendetan gure produktuak saltzea da gure helburuetako bat. Horrez gain, komunikabideen, webgune eta sare-sozialen bidez, gure produktuen berri ematea da gure beste xedeetako bat. Gure ustez aipatutako aukerak egokiak izan daitezke jendeak gure produktuen berri izateko. Bestalde, gure webgunean gure bezeroen iritzi eta iradokizunak jasotzeko gune bat jarriko dugu martxan produktuen kalitatea eta bezeroen beharren berri izateko.